

OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Araua osoa eta eguneratua jasotzen da bertan.

2011ko apirilaren 5eko 214 zk. Foru Agindua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Nekazaritzako Makineriaren Erregistro Ofizialean makineria inskribatzeko buruz.

SARRERA

1. artikulua. Xedea.
2. artikulua. Derrigorrez inskribatu beharreko makineria.
3. artikulua. Makineria inskribatzeko baldintzak eta modua.
4. artikulua. Tramitazioa eta erregistroa.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Xedapen gehigarri bakarra

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Xedapen iragankor bakarra

AMAIERAKO XEDAPENAK

Amaierako lehenengo xedapena

Amaierako bigarren xedapena

I. ERANSKINA

BOG 15 Apirila 2011

Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuko foru diputatuak 2011ko apirilaren 5ean, ondorengo agindua eman du:

2009ko ekainaren 19ko 1013/2009 Errege Dekretuak, nekazaritza makineria ezaugarritzeari eta erroldatzeari buruzkoak (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2009ko uztailaren 15ekoa), 1.1 artikuluan ezartzen du xede dituela, bai nekazaritzako makineriaren ezaugarrien araudia ezartzea, bai makineria hori Autonomia Erkidegoetako Nekazaritzako Makineriaren Erregistro ofizialetan (ROMA) inskribatzeko oinarritzko baldintzak arautzea.

Errege Dekretuko III. kapituluan erregistro hauen erregimena arautzen da, zenbait xedapenen bitartez: Egitura, derrigorrez inskribatu beharreko makinak, gutxieneko dokumentazioa, e.a.

Errege Dekretuko II. eranskinak zehazten ditu ROMAn derrigorrez inskribatu behar diren makineria taldeak, aurreko araudian aurreikusitakoei bi puntu hauetan adierazitakoak gehituz: H) tratamendu fitosanitarioak emateko arrastaturiko edo esekitako edozein edukiera eta pisuko makinak; i) ongariak banatzeko arrastaturiko edo esekitako edozein edukiera eta pisuko makinak. Makina horiek aurretik inskribatu gabe badaude, 2 urteko epea dute gehienez ROMAn inskribatzeko (xedapen iragankor bakarra).

II. eranskineko k) letran eta 12. artikuluko 1.g) eta 2.c) ataletan jasotzen da Autonomia Erkidegoek arautu dezaketela derrigorrezko inskripzioko bestelako makineria ere, nahiz eta estatuko arautegian agertu ez. Orobat, arautegi horretan ezarritakoaz gain, dokumentazio gehigarria ere eska dezakete.

Horregatik eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuak ROMaren arduraduna denez Gipuzkoako Lurralde Historikoan, bidezkoa da zenbait xedapen arautzea makineriaren inskripzioari buruz.

Hori guztia kontuan izanik, 1983ko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Autonomia Erkidego Osorako erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foru erakundeen arteko harremani buruzkoak, 7.b.1) artikuluan xedatutakoari jarraikiz eta 2005eko uztailaren 12ko Foru arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, xedatutakoari jarraikiz,

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Xedea.

Foru agindu honen xedea da, nekazaritza makineria ezaugarritzeari eta erroldatzeari buruzko 2009ko ekainaren 19ko 1013/2009 Errege Dekretuari jarraikiz, arautzea makineriaren inskripzioak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Nekazaritzako Makineriaren Erregistro ofizialean, zeina Landa Ingurunearen Garapeneko departamentuaren menpe baitago.

2. artikulua. Derrigorrez inskribatu beharreko makineria.

2.1. ROMAn inskribatu behar dira nekazaritza jarduerarako erabiliko diren makinak (nekazaritza, abeltzaintza edo baso jarduerak), baldin eta legezko araudia betetzen badute eta 2009ko ekainaren 19ko 1013/2009 Errege Dekretuaren II. Eranskinean a) letratik j) letrara agertzen diren taldeetan sartuta badaude.

2.2. Aurrean adierazitakoaz gain ROMAn ondorengo makineria inskribatuko da:

- Tratamendu fitosanitarioetarako eta negutegiko UBV teknika erabiltzen duten ekipoa.
- Tratamendu fitosanitarioak egiteko eskuzko ekipo lainoztagailuak egiteko (eskorga).
- Tratamendu fitosanitarioak egiteko motordun motxila pneumatikoa (lainoztagailuak).

Ez dira inskribatu behar eskuzko eta presio aurretiko edo atxikiko lainoztatze motxilak.

3. artikulua. Makineria inskribatzeko baldintzak eta modua.

Makina bat ROMAn inskribatuko da ustiategiaren zati nagusia Gipuzkoako Lurralde Historikoan barruan badago; zerbitzu enpresei dagokienez, aldiz, enpresaren helbide soziala lurralde honetan badago. Nekazaritza Makinen Erregistroan inskribatzeko eskaerak eskualdeko nekazaritza bulegoetan (ENB) zein Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuan egin daitezke.

Makineriaren inskripzioa 2009ko ekainaren 19ko 1.013/2009 Errege Dekretuak jasotzen duen bezala egingo da, 11. artikuluan aipatzen diren baldintzei eta titularrei dagokienez, eta 12. artikuluan arabera eskatzen den dokumentazioa aurkeztuko da.

4. artikulua. Tramitazioa eta erregistroa.

Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuko Landare Alorreko Unitateak inskribatzeko eskabideak bideratuko ditu. Horrek bidezko egiaztapenak egingo ditu eta, horren ondoren, inskripzio ziurtagiri bat egingo du makina bakoitzerako. Inskripzioa ustiategiaren zati nagusia hartzen duen udalerrian egingo da. Zerbitzu enpresei dagokienez, aldiz, enpresaren helbide soziala duen udalerrian.

Eskatutako agiriak eransten ez dituzten eskabideak baztertu egingo dira. Makinen bajak eta titulartasun aldaketak Eskualdeko nekazaritza bulegoetan (ENB) edota Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuan egingo dira, makinen titularrek eskatuta.

Xedapen gehigarri bakarra

Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuak, sektoreko elkarrekin batera, ahalik eta zabalkunderik handiena egingo du eta informazio egokia emango du elkartekideekin artean eta, oro har, sektorean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko ROMAn makineria inskribatzeko baldintzei buruz.

Xedapen iragankor bakarra

2009ko ekainaren 19ko 1013/2009 Errege Dekretuaren xedapen iragankor bakarrean xedatzen den inskripzio epea foru agindu honen 2. artikuluan 2.2. atalean agertzen den makineriari, jada erabiltzen denari, aplikatuko zaio. Era berean makineria honi aplikagarria izango zaio xedapen horretan aurreikusten dena, hots, ezaugarri buruzko ziurtagiria ordeztzeko aukera, baldin eta eduki ezean, makinaren titularrak sinatutako aitorten batekin eta eranskin honetan azaltzen den aitortenaren ereduari jarraikiz.

Kasu horietan, erosketa faktura edo salerosketa, leasing, renting edo antzeko kontratua falta bada, makinaren balioa titularrak sinatutako aitortenaren arabera kalkulatu da.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Amaierako lehenengo xedapena

Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuak banakako identifikaziorako zenbakia esleituko du, eta bastidore zenbakirik ez duten makinetan trokelatu edo grabatu egingo da, modu ezabaezinean, haren xasisean, 2009ko ekainaren 19ko 1013/2009 Errege dekretuaren arabera.

Amaierako bigarren xedapena

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

I. ERANSKINA



ANEXO I / I. ERANSKINA


Disposición final primera.

D./Dña. jaun/andereak (DNI/NA),



Ondorengo tratamendu ekipoen jabea dela AITORTZEN du/ DECLARA que es titular de los siguientes equipos de tratamiento

TIPO DE MAQUINA DE TRATAMIENTO / TRATAMENDU MAKINA MOTA	
Atomizador arrastrado / Arrastaturiko atomizadorea	<input type="checkbox"/>
Atomizador suspendido / Esekitako atomizadorea	<input type="checkbox"/>
Equipo hidráulico de barras(pulverizador) / Barradun ekipo hidraulikoa (pulberizadorea)	<input type="checkbox"/>
Nebulizador / Nebulizadorea	<input type="checkbox"/>
Espolvoreador / Hautseztagailua	<input type="checkbox"/>
Equipo de UBV / BUBko ekipoa	<input type="checkbox"/>
Equipo pulverizador de arrastre manual (carretilla) / Eskuz arrastaturiko ekipo pulberizadorea (eskorga)	<input type="checkbox"/>
Mochila neumática de motor / Motordun motxila neumatikoa	<input type="checkbox"/>
Otra / Beste bat	<input type="checkbox"/>
Marca /Marka:.....	
Modelo / Modeloa:.....	
Nº Bastidor / Txasis zk:.....	
Antigüedad / Noizkoa: años/urte	
Precio / Prezioa:	

Con las siguientes características técnicas: / Ondorengo ezaugarri teknikoak ditu:

Capacidad del depósito / Edukiontziaaren edukiera (l):.....	
Marca de la bomba / Ponparen marka:.....	
Tipo de bomba / Ponpa mota:	 MEMBRANA / MINTZEZKOA: <input type="checkbox"/>
	 PISTÓN / PISTOI <input type="checkbox"/>



 Posee barra de distribución / Banaketa barrarekin:	SI/BAI <input type="checkbox"/>	NO/EZ <input type="checkbox"/>
 Con disparador / Kriskagailuarekin:	SI/BAI <input type="checkbox"/>	NO/EZ <input type="checkbox"/>
Solo en equipos con ventilador / Haizegailudun ekipoetan bakarrik:		
Tipo de ventilador / Haizegailu mota:	Axial / Axiala <input type="checkbox"/>	
	Centrifugo / Zentrifugoa <input type="checkbox"/>	
Nº de álabes del ventilador / Haizegailuaren beso kopurua: _____		
Diámetro de ventilador / Haizegailuaren diametroa: _____		

Marcar con una (x) el tipo de equipo / X batekin jarri ekipo mota.

En, a ... de de
.....an,korenan

Sinadura/Firmado:



D./Dña. jaun/andereak (DNI/NA).

Ondorengo tratamendu ekipoen jabea dela AITORTZEN da/DECLARA que es titular de los siguientes equipos de tratamiento /

TIPO DE ABONADORAS / ONGARRITZEKO MAKINA MOTAK	
Abonadora centrífuga de brazos oscilantes / Ongarritzeko makina zentrifugo beso zabukaria:	<input type="checkbox"/>
Abonadora centrífuga de discos / Ongarritzeko diskodun makina zentrifugoa:	<input type="checkbox"/>
Abonadora de gravedad / Grabitate bitarteko ongarritzeko makina:	<input type="checkbox"/>
Otra / Beste bat:	<input type="checkbox"/>

Marca / Marka:
Modelo / Modeloa:
Nº Bastidor / Txasis zk:
Antigüedad / Noizkoa: años/urte
Precio / Prezioa:

Con las siguientes características técnicas / Ondorengo ezaugarri teknikoak ditu:

Capacidad de la tolva / Toberaren edukiera: m ³	
ABONADORAS CENTRÍFUGAS / ONGARRITZEKO MAKINA ZENTRIFUGOAK	
De disco / Diskodunak <input type="checkbox"/>	De brazos oscilantes / Beso zabukariak
Anchura de trabajo / Lan Zabalera (m):	Anchura de trabajo / Lan Zabalera (m):
Número de discos / Disko kopurua:	Longitud del tubo / Tutuaren luzera (mm):
Transmisión / Trasmisioa:	Transmisión / Trasmisioa:
Mecánica / Mekanikoa <input type="checkbox"/>	Mecánica / Mekanikoa <input type="checkbox"/>
Hidráulica / Hidraulikoa <input type="checkbox"/>	Hidráulica / Hidraulikoa <input type="checkbox"/>
ABONADORAS POR GRAVEDAD / GRABITATE BITARTEKO ONGARRITZE MAKINAK	
Sistema de movimiento del fertilizante / Ongarriaren mugimendu sistema:	
Neumático / Pneumatikoa <input type="checkbox"/>	
Mecánico / Mekanikoa <input type="checkbox"/>	
Anchura de trabajo / Lan zabalera (m):	
Número de salidas / Irteera kopurua:	
Tipo de transmisión del dosificador / Dosifikatzailearen transmisio mota:	
Mecánica / Mekanikoa <input type="checkbox"/>	
Hidráulica / Hidraulikoa <input type="checkbox"/>	

Marcar con una (x) el tipo de equipo / X batekin jarri ekipo mota.

En a ... de de
.....an,korenan

Sinadura/Firmado: